

# YK RIDERS ENDURO MARTXA

## Probaren xedea:

Arauntza Riders Kirol Elkartek honako kirol ekitaldi hau burutu nahi du, jarraian deskribatuko diren xehetasunekin:

Azpeitiko (Gipuzkoa) eta inguruetako mendietan zehar, 2026ko urriaren 10ean, larunbata, ez lehiakorra izango den mendi bizikleta martxa bat antolatzea.

Martxako ibilbidea zirkularra izango da, eta 36 Km eta 1800 m-ko desnibel metatua izango ditu ibilbiderik luzeenean, hala ere, ibilbidea laburtzeko aukera izango da.

Azpeitiko skatepark-etik abiatuko da martxa, eta inguruko hainbat mendi zeharkatuz toki berean amaituko da.

## Probaren araudia:

- 1- **Irteera eta helmuga:** Azpeitiko Skatepark-ean, 2026ko urriaren 10ean, 9:00etan.
- 2- **Dorsalen bilketa:** aurreko egunean, urriaren 9an, 19:00etatik 20:00etara bitartean edo 11an bertan, 8:00etatik 8:30etara. Dorsalak Azpeitiko Skatepark-ean jasoko dira.
- 3- Ibilbide guztian zehar **derrigorrezkoa** da **kaskoa** erabiltzea. Komeni da, halaber, belaunetakoak, besokoak eta gainerako babesak erabiltzea.
- 4- Antolakuntzak proba aldatzeko edo bertan behera uzteko eskubidea izango du, eguraldia edo bestelako arrazoiak direla medio.
- 5- Ibilbidea oinezkoentzat eta ibilgailuentzat irekita dago; beraz, kontu handiz ibili behar da, eta antolatzaileen jarraibideei kasu egin behar zaie.
- 6- Izena emateko ordainketa egin ondoren ez da itzulketarik egingo, proba bertan behera geratzen den kasuetan izan ezik.
- 7- Lasterketan izena emateak erantzukizun zibileko aseguruia eta ez-federatuentzako istripuen aseguruia dakartza.
- 8- Proban parte hartzeak araudi hau osorik onartzea ekarriko du, baita probaren gogortasunaren berri baduela aitortzea ere. Ezbeharren bat edo istripuren bat gertatuz gero, osasun-zerbitzuei beharrezko osasun-arreta emateko baimena emango zaie, egoki iritziz gero.
- 9- Proban parte hartzeak irudi-eskubideak lagatzea dakar, eta antolatzaileek argazkiak edo bideoak argitaratu edo hirugarrenei lagatzeko aukera izango dute, denbora eta leku mugarik gabe, ekitaldia sustatzeko edo zabaltzeko.

## Probaren fitxa teknikoa:

Bi ibilbide izango dira, luzea eta motza. Hasiera berdina izango dute, beraz ibilbidean bertan erabaki ahal izango da zein aukeratu, antolatzaileek ahalbidetzen duten heinean.

- **Data:** 2026ko urriaren 10.
- **Irteera ordua:** 9:00etan.
- **Irteera lekua:** Azpeitiko Skatepark-a.
- **Distantzia:** Luzea: 36 km / Motza: 27 km
- **Desnibel metatua:** Luzea: 1800 m / Motza: 1300 m
- **Irteera-altitudea:** 80 m.
- **Gehieneko altitudea:** 912 m.
- **Anoa gunea:** Skatepark-a (16. km), Xoxote (22. km – 31. km)

| Ibilbidea | Dist. / desn.  | Irteera lekua | Irteera ordua | Prezioa |
|-----------|----------------|---------------|---------------|---------|
| Luzea     | 36 km / 1800 m | Skatepark-a   | 9:00          | 30 €    |
| Motza     | 27 km / 1300 m | Skatepark-a   | 9:00          | 30 €    |

## Gomendioak:

- Bide-zorua lurrezkoa, hartxintxarezkoa edo asfaltozkoa da gehienbat, baina lokatzezko zati batzuk egon daitezke, edo okerrago egokituak, aurreko egunetako meteorologiaren arabera. Eremu arriskutsuenak seinalatzatuko dira.
- Adi!!! Ibilbidean zehar errepidea gurutzatzen den hainbat puntu daude. Antolakuntzako langileak egongo dira trafikoa zuzentzen, baina kontu handiz ibiltzea gomendatzen da.

## Zerbitzuak:

- Sari ugariren zozketan parte hartzea, sponsor guztiei esker.
- Bi anoa gune puntu egongo dira, Skatepark-ean eta Xoxote mendian, ibilbidearen 16, 22 kilometroetan. Gozokiak, fruta eta edariak egongo dira bertan.
- Proban izena emateak erantzukizun zibileko aseguruia eta federatu gabekoentzat istripuetako aseguruia dakar. Aseguru horrek probaren ondorioz sor daitezkeen lesioak estaliko ditu.
- Osasun-asistentzia ibilbidean zehar. Anbulantzia eta lur orotako ibilgailua.
- Probaren amaieran, "mokadutxo", edariak eta musika egongo dira Azpeitiko skatepark-ean, eta ondoren bazkaria 14:30ean proban parte hartu duenarentzat.
- Azpeitiko udal igerilekuko duxak eta aldagelak erabilgarri.
- Bizikletak garbitzeko mangera zerbitzuak.

## Kokapena:

- Azpeitiko skatepark-a: <https://maps.app.goo.gl/o5v3oYKhZ2M44ewi7>
- Dutxa eta aldagelak: <https://maps.app.goo.gl/b4ZtXUrZYiawZ4KR7>
- Parking-a: <https://maps.app.goo.gl/ZngeP2bRHS5qMQST7>

